

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2025eko azaroak 28 · 1376 zenbakia

ERRELEBOA ESKU ONETAN

eslaban

eslaban.com
T. 943 820 407

Igogailuak **Fatxadak** Teilatu berritzeak eta aldaketak
Erreformak Proiektuak **Konponketa bereziak**
Lantokientzako lan bereziak **Eraikinen mantentzea**

Tradizioak ospatu.



Zure irribarrea
zaindu.

📷 @arat_klinika

Toribio Etxebarria, 4 Behea 20600 Eibar 943 201 851

www.aratklinika.com

Jarraitu gaitzazu!



Urbat waterpolo taldeak urteak daramatza San Andres egunean taloak egiten eta aurtan ere zeregin horretan ibiliko dira. Iñigo Kortabarria presidentearekin berbetan egon gara taloak egiten nola moldatzen diren jakiteko. Bideo hau eta beste asko ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean ikus daitezke..



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez, Irune Jaio eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Irune Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Mendiak libre

Berdin da zer entzun edo zer esaten dugun gizakiok. Mendiak ez dira gureak, bizitza da. Eibartarrok nola arnastuko dugu mendi puntaraino industrializazioa ipintzen badugu? Nora joango dira mendiko animalia hegaztiak: Miru gorria, enarak, txantxangorriak, zozoak, belak, saguzarrak haize errotei ihesi? Eskabadora handiek apurtzen dituzten lurretan, eta zementuz betetzen ditugun lurretan zein animalia biziko da?

Mendia errespetatu deigun. Gure ondarea da.

Mikel

Hortik esanak



Enpresari eta profesional jendea joaten zen Sarajevora tiro egitera, gehienbat emakumeei, haurrei eta zaharrei tiro egitera; gehienak Italia iparraldean bizi ziren, Turin eta Trieste artean, eta 200.000 euro gastatzen zituzten aste-buru bakar batean. Ekonomian eta gizartean eragin handia duten pertsona batzuei buruz ari gara. Ehunka batzuk dira, denak ere armazaleak, ehizazaleak. Safari-safariak egiten zituzten gizakiak harrapatzeko, 100.000 euro ordainduta Afrikan elefanteak harrapatzeko egiten diren safarien antzekoak, edo 200.000 ordainduta lehoiak harrapatzeko egiten diren antzekoak.

Ezio Gavazzeni, kazetaria

Ongi etorria bedi Euskalgintzaren Kontseiluak bultzaturik, datorren abenduaren 27tik abiatzekoa dugun «pizkunde berri» garaia. Ezinbestean jarraitu behar dugunez borrokan legez eta praktikan lortu arte euskaldunok Euskal Herri osoan tratatuak izan gaitezen, gutxienez, erdaldunak gure herrian tratatuak diren begirune berez, euskaldunok ere izan ditzagun gutxienez erdaldun huts petoek gure lurrean dituzten eskubide linguistiko berdinak. Espainola (edo frantsesa) zernahitarako derrigorrezko diren neurri berean izan dadin euskara ere derrigorrezko.

Bittor Hidalgo Eizagirre

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PITXADAKA → Dejadak edo pitxadak egiten jokatu. “Pitxadaka egin zittuan tanto asko”.
PITXI → Ume-hizkeran polita, bitxia, edergarria. “Ene!, ze pitxi ederra ipini detsun amatxok atzamarrian!” Balio gutxiko bitxia adierazteko ere erabiltzen da. Gaztelarazko ‘baratija, de pacotilla’. “Denda dotoria eta haundixa, baiña dana pitxia”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 29
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
DOMEKA 30
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 1
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
MARTITZENA 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 3
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 4
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Loli Torres Vieitez**. 67 urte. 2025-XI-19.
- **Pedro Maria Garate Elgezua "Kepa"**. 77 urte. 2025-XI-19.
- **Miguel Tudanca Marroquin**. 2025-XI-21.
- **Olga Zubiaurre Urriola**. 88 urte. 2025-XI-20.
- **Jose Luis Vicario Tome**. 76 urte. 2025-XI-22.
- **Jesus Mari Exposito Loyarte "Coci"**. 65 urte. 2025-XI-23.
- **Maria Luisa Iturriagagoitia Milikua**. 91 urte. 2025-XI-23.
- **Felipe Gallego Hernandez**. 74 urte. 2025-XI-23.
- **Maria Dolores Perales Garcia**. 92 urte. 2025-XI-26.



Eibarko Mendiak Bizirik plataformak informazio kanpaina jarriko du martxan asteburuan

S.H. Eibarko Mendiak Bizirik herri-plataformak jakinarazi duenez, “Basalgo” proiektu eolikoaren inguruko informazio-kanpaina jarriko du martxan. Adierazi dutenez, “Eibar, Bergara eta Soraluezko mendietan 200 metroko sei aerosorgailu jarri nahi ditu Arena Power enpresa andaluziarraren proiektuak, eta horrek kalte handiak eragingo lizkioke hiru herrietako natura-inguruneari, landa-inguruneari eta ondare historikoari”. Kanpaina asteburu honetan hasiko da, lehen helburu batekin: “Basalgo” proiektua eta plataformaren lana ezagutaraztea. Horretarako, eskuorriak, pegatinak eta kartelak banatuko dira. Datozen asteetan kanpainan sakonduko da eta jarduera gehiago egingo direla iragarri dute. Aldi berean, Eibarko Mendiak Bizirik-ek “Basalgo” proiektuaren aurkako alegazioak prestatzen dihardu, “kasu batzuetan konplexutasun tekniko handikoak”. Plataformak, bestalde, herritarrek eskaintzen ari diren babesa eskertu nahi du, eta gogorarazi du informazio gehiago jaso nahi dutenek, edo parte-hartze aktiboagoa izan nahi dutenek, astero bilerak irekietara joan daitezkeela. Asteazkenetan 18:30etan egiten dira, Kultun.


Azaroak 25eko ekimenak bideoan ikusgai

S.H. Azaroaren 25aren inguruan Eibarren antolatutako egitarau ofizialaren barruan, martitzenean indarkeria matxistaren aurkako hainbat ekimen egin ziren herrian, eta horiek guztiak bideoan laburbildu eta ikusgai jarri ditugu gure webgunean eta sare sozialetan.

Neguko harrera dispositiboa martxan jartzeko sinadurak biltzen hasi dira

S.H. Etxerik gabeko pertsonen aldeko END plataformatik sinadurak biltzen ari dira, “kaleko egoeran dauden pertsonak kalean lo egitera behartuta egon ez daitezen”. Sinadurekin babesteko manifestuan, kalean dauden pertsona guztiei harrera egiteko dispositibo bat abian jartzea exijitzen diete Eibarko Udal ordezkariari. Azaldu dutenez, oraingoz ahalegina Eibarren egingo dute, baina aurrerago Debabarreneko gainerako herrietara zabalduko dute ekimena. Azpimarratu

dutenez, ez dute loturarik erakunde politikoeekin, “independenteak gara eta horrela jarraitu nahi dugu”. Sinadura bilketa San Andres bezperan (azaroak 29), 19:00etatik 21:00etara eta San Andres egunean (azaroak 30), 12:00etatik 14:00etara egingo dute, Toribio Etxebarria kalean. Adierazi dutenez, “Eibarko herritarrei eskatzen diegu, euren sinadurarekin, kale-egoeran dauden pertsonak kalean lo egitera behartuta ez egoteko leku baten beharra islatzeko”.



XABALO
2024

F. Calbeton, 12 943096884
OKINDEGIA / GOZOTEGIA
TXUTXE-DENDA
JANARIDENDA TXIKIA

Sananadresetan ZUEKIN



LORADENDA

LORAEI LANDARE
NATURAL ETI
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29 *Enkarguak etxera*



Egoaizia Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeak 25 urteko ibilbidea ospatu du

S.H. Egoaizia Gobernuz Kanpoko Erakundeak 25. urteurrena ospatu zuen zapatuan, Portalean boluntarioak, bazkideak eta herritarrak bilduz. Ekitaldian erakundeak urte hauetan eginiko nazioarteko eta tokiko proiektuak gogoratu ziren, hezkuntza, genero-berdintasuna

eta giza eskubideak sustatzeko egindako ekintzak barne. Parte-hartzaileek esperientziak, oroitzapenak eta bertso espontaneoak partekatu zituzten, eta ospakizunaren bitartez elkartasunaren eta gizartea hobetzen jarraitzeko konpromisoaren garrantzia azpimarratu zen.

Abenduaren 11n egingo da 1949. urtean jaioetakoen ospakizun-bazkaria

S.H. 1949an jaioetakoek abenduaren 11n ospatuko dute beraien kintojaia eta, horretarako, Koskor tabernan elkartuko dira, 12:30ean. Bertan topa egin ondoren, argazkia egingo dute, Untzagan, eta Ego-Gainen autobusa hartuko dute, Azitain hotelera bazkaltzera joateko (ordubiak aldera). Bazkalostean dantzaldia egongo da. Izena emateko 75 euro sartu behar dira, izen-abizenak argi adierazita, ondorengo kontu zenbakian: ES9000814362670001554565.



Jose Ignacio Santamariak eta Oscar Lauzirikak irabazi dute bakailao txapelketa

S.H. Urtetik urtera parte-hartzaile gehiago dauzkan txapelketa honetan 44 bikote aritu ziren domekan, bakailaoa pil-pil eran prestatzen, eta epaimahaikideek hala erabakita, hauek izan dira XXXI. Bakailao Txapelketako irabazleak: lehen saria Turuntun kuadrillako Jose Ignacio Santamariak eta Oscar Lauzirikak eraman dute; bigarrena, Denon Sahatsa elkarteko Juan Portu Aragonek eta Elena Teixeira Portuk; eta hirugarren saria Luis Ayuso de la Fuente eta Margarita Iparraguirrek (Argazkia: Eibarko Udala).



‘Talo machine’-a berriz jarriko du martxan Urvat waterpolo taldeak

Ez dago San Andres jairik talorik gabe. Egun horretan, ia bide guztiek eramaten dute Untzagara eta, usain goxoari jarraituz gero, udaletxeko arkupeetan amaituko genuke. Han dago Urvat waterpolo taldeak jartzen duen talo fabrika eta irribarre batekin taloa eskuan dutela irteten da jendea. Ez dute batere esku txarra waterpolokoek.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**



BIDEOA



Eibarko kirol talde gehienek diru-kontuekin malabarrak egin behar dituzte aurrera egiteko. “Diru premiarekin gauden klubak beti gabiltza pentsatzen zer egin dirua lortzeko. Beste klub batzuek ekimenak egiten dituzte urtean zehar (errugbikoek Garagardo Jaia egin izan dute, txirrindularitzakoek Txistorra Eguna, eskubaloikoek ere badute euren eguna...) eta sanandresetan toki bat izan genezakeela ikusi genuen, esplotatu barik zegoelako”, azaldu digu Iñigo Kortabarria Urvat IKE-ko presidenteak.

Sanandresetan zer egin pentsatzen jarrita, “produktu izarra taloa zela pentsatu genuen”, eta martxan jarri ziren. Uretan ondo moldatzen dira Urbatekoak, baina talogintzan eskarmentu gehiegirik ez zutenez, buruari eragin eta makina bat sortzea pentsatu zuten: ‘talo machine’-a. “Sistema mekanizatu egin

dugu horrela eta taloak oso azkar ateratzen ditugu, eskuz eginda baino askoz ere bizkorrago”, azaldu digu presidenteak. Iaz, adibidez, 2.000 talo inguru banatu zituzten.

Klubeko jokalariei baten aitzak armagintzan egiten zuen lan eta nonbait horrelako zerbait ikusi zuenez, prototipo bat egin zuen. “Demaseko arrakasta eduki zuen eta, gaur egun, bi makina ditugu”, diosku presidenteak. Hainbestekoa da arrakasta, beste jai batzuetan erabiltzeko ere eskatu dietela.

Bizirauteko berebizikoa

Saldutako talo kopurua handia izanik, diru dezente ateratzen dutela onartu digu Kortabarriak. Beharrezkoa gaur egun klubak duen bolumena asetzeko. Izan ere, San Andres egunean irabazten dutena berebizikoa da klubaren biziraupenarentzat. “Gure urteko aurrekontuaren %10 inguru da”, presi-



San Andres egunean Urvat-eko 50 lagun inguru ibiltzen dira taloak egin eta banatzen. URBAT

dentearen berbetan. “Txosnarik edukiko ez bagenu, zaila izango litzateke kontuak borobiltzea”. Orduan, talo-gunean jatekoa eta edatekoa eskaintzeaz gain, rifak ere salduko dituzte egunean zehar.

Urvat IKE asko hazi da bere sorreratik. “Oraingo Urvat-ek eta orain dela 10 urtekoak oso antza gutxi dute elkarren artean. Hazi egin gara eta, era berean, gastuak ere asko hazi dira”, diosku Kortabarriak. Bide beretik, sanandrese-tako talo-postuak ere eraldaketa izan du. “Ni hasieran ez nintzen egon, baina lehen urteetako postua

Bihar, San Andres bezperan, bokadiloak emango dituzte, eta domekan, San Andres egunean, taloa izango da produktu izarra

umilagoa zen, taloak eskuz egiten ziren...”, entzun duenegatik.

Gauregun, talo-postua “parafernalia potoloa da”, bere ustez. Talo

gehiago ematen dira eta, horretarako, jende gehiagoren laguntza behar da egun horretan. “Jende asko dago tartean sartuta, 50 lagun inguru egoten gara lanean”, esan digunez. Beraz, waterpolo jokalariez gain, entrenatzaileak, zuzendaritzako kideak eta euren familiak egoten dira ‘talo machine’-ari sua ateratzen. “Hasteko, osagaiak lortu behar dira, postuaren muntaketa egin behar da, oreka egin, bokadiloak eta taloak egin eta banatu, baita tragoak ere, gero dena jaso...”, zerrendatu digu Kortabarriak.

BASERRIKO PRODUKTUAK
IBARKURUTZE
frutadenda

WHATSAPP BIDEZ ESKAERAK
680 38 20 91 / 664 71 86 99



**PUBLI
RESA**
disagarrien pertsonalizazioa



merchandising
serigrafia
lanerako erropak

www.publiresa.com 📍 Armagin 3-5 beheak
☎ 943 701 497 / 687 879 667 ✉ publiresa@publiresa.com

Urbat IKE-rentzat berebizikoa izaten da talo-postua jartzea, bertan irabazten dutena urteko aurrekontuaren %10 inguru delako



Talo zapore ezberdinak

Aurten, San Andres eguna domekan denez eta bezperan ospakizunak daudenez, talo-gunea zapatu arratsaldean zabaltzea espero dute Urbatekoek, 18:00etatik 00:00etara. Hori bai, zapatuan ez dituzte taloak egingo, ogitartekoak baizik, eta tragoak emango dituzte.

San Andres egunean, 10:00etan zabaltzen dute postua Urbatekoek (05:00etatik daude martxan) eta bazkalordura arte egoten dira bertan. Lan handia egiten dute egun osoan zehar, batez ere 12:00etatik 15:30era. “Ordu horietan ia ez dugu bururik altxatzen”, bere berbetan. Gauzak horrela, taloa erosteko ilaran daudenek lasai hartu dezatela, heldu da-eta euren txanda. “Eta bestela, zenbakiak banatzen ditugunez, euren txanda noiz etorriko den erraz ikusi dezakete eta, bitartean, trago bat hartu edo buelta bat eman. Inoiz ez da



Prestakuntza eta lan handia eskatzen du San Andres egunean taloak egiteak. URBAT

Txorizo, odoloste, hirugihar, gazta eta txokolate-taloak eskainiko dituzte

ordubete baino gehiago itxaron behar izaten”.

“Talo machine”-ak prest daude domekan dena emateko. Gainera, Urbatekoek talo eskaintza aberatsa dute: “Txorizo, odoloste, hirugihar, gazta eta txokolate-taloak (jendeak eskatzen du, umeek batez ere) eskainiko ditugu”, aurreratu digu Kortabariak. “Oso gozoak daude denak. Gu geu ez gara ados jartzen onena zein den esateko”. Eta zuretzat, zein da talo zaporerik gustukoena?



Eibarko **PROFESIO LIBERALAK**

ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4, 3 D lokala
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70
abogada@martavalera.es

AHOLKULARIAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.com
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

“Jende nagusiak ohitura du lehenengo erosteko, eta gero buelta bat emateko”

OLATZ eta ENERITZ ALBERDI eta ANDER URKIA • Baserritarrak



Olatz eta Eneritz Alberdi Mandiola Gañekua baserrian jaio ziren. Olatz Loixola baserrira ezkondu zen eta Eneritzek jaiotokian jarraitzen du, biek ala biek baserriko bizimoduari jarraipena eman diotelarik. Ander Urkiak, bestalde, 2020an kalea laga eta Amazabalegi baserria hartu zuen, bizimodu berria hasiz. Jatorria bata edo bestea izan, hirurek maite dute baserriko bizitza.

Elkarrizketa
osoa eta
BIDEOA



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Eibarko baserri batzuk hutsik geratu dira eta beste batzuk bizileku bezala daude bakarrik, baina oraindik badira ohiko jarduerari eusten dioten baserriak ere. Eta egon beharko! Barazkiak eta fruituak ekoizten dituzte, animaliak hezi, inguruak zaindu eta gure ondareari eusten diote. Olatz, Eneritz eta Ander dira jarduera horren eredu batzuk, baina etorkizuna gehiagoren esku egon behar da.

Normalean nola bizitzen duzue San Andres eguna?

OLATZ: Niretzat herriko jairik politena da. Egun berezia guretzat. Bizi guztian jaitsi izan gara animaliekin eta 2016an barazkiak jaisten hasi ginen. Modu berezian prestatzen gara San Andres azokarako, onena eramaten saiatzen gara. Beti gordetzen dugu bistara ondoen egiten duen generoa. Astero joaten gara Errebalgo Merkatu Plazara, baina hau ezberdina da, handiagoa, eta jendeak ondo ikustea nahi izaten dugu. ANDER: Orain dela bost urte erosi nuen baserria eta oraindik ez dut postua jarri San Andres azokan. Orain nabil salmentaren munduan sartzen. Azoketara ez naiz sekula joan, baina niretzat ere San Andres eguna da Ei-

barko jai politena, Arrate egunarekin batera. 30ean beti irten izan naiz goizean feria ikustera: ganadua, postuak... Gero, kalean bazkaldu eta frontoira.

Txikitatik ezagutzen duzue San Andres azoka. Nola-ko bilakaera izan du urte hauetan?

ENERITZ: Askok jaitsi da lehendik hona.

OLATZ: Postuak handiagoak dira, baina jende gutxiago dago. Uste dut politagoa dela postu ezberdin gehiago egotea, jende gehiago, genero ezberdina ikusi... Joan den urtean ez ginen egon, baina oso postu luzeak zeuden eta betiko jendea falta zen.

ANDER: Adinean gora egin du jendeak...

ENERITZ: Eta ez dute erreleborik.

Beste azoka batzuetan egoten zarete?

ENERITZ: Inoiz Elgoibarko Gabonzaharreko azokara joan gara.

OLATZ: Baina ama izan garenetik, 2019tik, ez dugu feriarik egin. 'Kit-kat' bat egin dugu. Bestela ere, Elgoibarkoa gehiago da produktua eta abar ikusteko, ez hainbeste erosteko. Eibarrera jendea karroarekin edo poltsekin etortzen da genero bila.

ENERITZ: Jende nagusiak ohitura du lehenik eta behin



erosketak egiteko, eta gero buelta bat emateko gauzak ikusteko.

Zer ekoizten duzue?

OLATZ: Sasoian sasoikoa. Neguko generoarekin joango gara azokara eta, aurten, fruituak ere eramango ditugu: limoia, lima, pomeloa, kakia... Fruta-arbolekin sartu gara pixkat. Generoa... Tira, aste honetan eguraldiak ez du batere lagundu, txingorrekarekin eta abar.

Klima aldaketak zuen jardunean eragiten duela igarri duzue?

ANDER: Urte asko ez daramatzadanez, ez dut asko igarri, ez dut erreferentzia askorik. Bost urte hauetan,

urte batetik bestera bai igarri dut aldaketa euri-kopuruan. Iaz, adibidez, udaberrian euri asko egin zuen eta asko kostatu zen ortuan lana egitea (lurra prestatzeko eta abar); eta aurten kontrakoa, demaseko uda-giroa eduki dugu orain dela astebetera arte. Horrek erraztu egiten du beharra egiteko aukera.

OLATZ: Nik klima aldaketa igartzen dut. Bizi guztian eduki ditugu ardiak eta behiak etxean, baina orain dela gutxi etorri zen gaixotasun bat abereak hiltzen zituen Moskito batena, orain dermatosi nodularrena agertu da... Bestalde, ortuan ere geroz eta zomorro gehiago dago. 37 urtean ia ezer ez eduki ondoren, orain dela hiru urte

BoLINTxo
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Eguneroko ogia
☎ 943 20 40 66 (Errebal)



ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



“Orain, San Andres azokan, postuak handiagoak dira, baina jende gutxiago dago”

“Jendeak COVID-aren sasoian probatu zuen benetakoa zer den eta eroatera etortzeko ohitura hartu zuten”

porruaren kokoarekin ia dena hondatu zitzaidan, tximeleta eta har gehiago daudela ikusten da... Kostatzen da. Bistarako polita, dena berdea, botika gutxi erabiltzea... Hori gero eta zailagoa ikusten dut. Eguraldia horrela dabil: demaseko beroa egiten du eta, bat-batean, euria, txingorra eta hotza; gero buelta eman dezake eta 3-4 astez berriz demaseko eguraldi ona egin. Ez da lehen bezala, bazenekien udazkenean sirimiria edo hego-haizea egingo zuela eta gero negua etorriko zela. Iaz ia ez zuen negurik egin.

ANDER: Beti esan da negua dela mamorroak-eta akabatzeke sasoia. Elurtuta, izozten badu, hil egiten dira. Orain, hainbeste hotz egiten ez duenez, Olatzek esan bezala, gero eta mamorro gehiago dago.

Lehen, urtaroak markatuago zeuden eta gutxi gorabehera bazenekien sasoi bakoitzean zer egingo zuen?

ENERITZ: Hori da, orain azaloreak berehala zabalitzen dira.

OLATZ: Lanerako oso ondo dago giro atsegina egitea, baina neguko barazkiek hezetasuna eta freskotasuna behar dute, adibidez.

Dermatosi nodularra dela eta, San Andres azokara ezin izango da abererik eraman. Nola eragin dizue horrek?

ENERITZ: Beldurra ematen dizu azkenean. Momen-tuz, gure abereak ez dira kutsatu eta lasai gaude, baina

etortzen bada, esplotazio guztia kendu behar duzu. Guk ardiak ditugu, behiak ere, eta kutsatuz gero arazo handia izango litzateke.

Egunerokoan, non saltzen dituzue produktuak?

ANDER: Oraingoz, Ibarkurutze dendara eramaten ditut produktuak eta udaberrian kontsumo-taldea sortzeko asmoa dut, otarrak egin eta zuzeneko salmentarekin has-teko. Bezperan barazkiak prestatzen ditut, dena garbi eta txukun laga, eta goizean goiz dendara jaisten ditut. ENERITZ: Nik Merkatu Plazan saltzen dut, etxean ere (paseatzailerei), Euskal Jaiko ferian egoten naiz eta aurten urriko Gazta Azokan egon naiz.

OLATZ: Gu ere Merkatu Plazan gaude eta WhatsApp-eko talde batetik nahi duenak enkargua egin dezake. Momentuan ditugun produktuak eskaintzen ditugu eta jendeak eskatzen du.

Jendeak badu bertako baserrietako produktuak erosteko ohitura?

ENERITZ: Jende asko COVID-aren sasoian hasi zen gurekin. Orduan hasi ziren probatzen benetakoa zer den eta eroatera etortzeko ohitura hartu zuten.

Alberditarrek seguruenik txikitatik jaso zenuten, baina Ander, zuk nola ikasi duzu ofizioa?

ANDER: Arraroa da, etxean inork ez duelako baserri-rik eduki. Kaletarra naiz eta 13 urterekin hasi nintzen



Anderren baserrian elkartu genituen hiru baserritarrek. EKHI BELAR

Azitaineko atxixaren txabolan neure kabuz gauzak egin. Ez nuen idearik ere. Gogoratzen dut nola otsailean eguraldi ederra etorri zen, tomateak erosi nituen, sartu, eta handik astebetera elurra egin eta hil egin zirela. Inguruko baserritarrei galdetzen-eta joan naiz ikasten. Gero, baserriaren arabera, gauzak aldatu egiten dira.

Adibidez, Olatzen baserria dagoen inguruan, Kiñarra-bailaran, eduki nuen ortua eta eguzki gutxi sartzen zen. Orduan, inguruko baserritarrei galdetu behar nien noiz sartzen zituzten gauzak. Eta agian, Arrate-bailaran beste modu baten egiten da, beste mikroklima bat dagoelako.

Irakurtzen jarraitu: WWW.ETAKITTO.EUS



ASUA
CARBURANTES

asuacarburentes.com

GASOLINA-ZERBITZUGUNE

modernoak, eskuragarria
eta erregaia azkar eta
merke hartzeko pentsatua





FIDELTASUN TXARTELA WEBGUNETIK ESKURATU DAITEKE

- **Kalitate** goreneko erregaia
- Kalitate-**prezio** erlaziorik onena
- Ordaintzeko **malgutasuna**
- Eguneko **24 orduetan** martxan



SARBIDE ERRAZAK

- Eibarko erdigunetik
- Ermutik
- Elgoibartik (bariantetik)



Asua Erreka 11

Eibar



ENEKO RAMON

San Andres eguna

San Andres berriro agertzen da egutegian eta herriak edozein iragarki ofizial baino lehenago nabaritzen du. Data batzuek taupada partekatu bat bezala funtzionatzen dute: *Ustekabe* entzutea edo azokara irtetea nahikoa da zerbait berezia berriro gertatzen dela ulertzeko. Eta, aurtun ere, festa honek zerbait deserosoa baina agerikoa erakusten du: **San Andresek udal askok baino hobeto komunikatzen du.**

Gaztaina usainarekin, lehen postuak ikustearekin edo "San Andres badator" bat entzutearekin, jendeak ulertzen du klima, emozioa eta ospakizunaren zentzua. Ez dago ezer azaldu beharrik; **herriak berak osatzen du historia.** Jaiak kontaketa duelako konektatzen du, oso barruan gordetzen dugun eta bizirik sentitzeko titularrik behar ez duen zerbait aktibatzen duelako.

Bitartean, udal askok datuekin bakarrik hitz egiten dute: inbertsioak, portzentajeak... Informazioa, bai; baina emozioa, inon ere ez. **Eta emoziorik gabe ez dago komunitaterik.** Herri batek ez du bere burua zenbaki batean ezagutzen, batzen duen istorio batean bere burua ezagutzen du eta nor den gogorarazten dio.

Komunikazio instituzionala oharren arbel bihurtu da: amaitutako obrak, argazki zorrotzak, inork gogoratzen ez dituen balantzeak. **Dena zuzen, baina dena hotz.** San Andresek soberan duena falta da: memoria, identitatea, praktikotasunetik haratago jendea lotuko duen haria. Mezu batek garrantzia izatea bezain gauza erraza –eta zaila–.

Horregatik, agian, **ikuspegia aldatzeko unea da:** zarata gutxiago eta narratiba gehiago; autobonbo gutxiago eta egia gehiago. Kontua ez da ezer heroikoa asmatzea, baizik eta jendeak sentitzen duena entzutea eta forma ematea. Komunitateak badu istorio bat; maitasun eta argitasun pixka bat izatea baino ez du eskatzen.

San Andresetan, herria instintiboki elkartzen den bitartean, agian oinarritzko zerbait gogoratzea tokatzen da: **kontakizunik gabe, erakunde batek informazioa ematen du;** kontakizunarekin, batu egiten du. Eta herri batu batek beti egiten du aurrera edozein plan estrategikok baino hobeto.

“Autobonbo gutxiago eta egia gehiago. Kontua ez da ezer heroikoa asmatzea, baizik eta jendeak sentitzen duena entzutea eta forma ematea. Komunitateak badu istorio bat; maitasun eta argitasun pixka bat izatea baino ez du eskatzen”



RAFAEL LAPEYRA, S.L.

LAMINAZIOZ EGINIKO ZEHAZTASUN HAUNDIKO HARIAK
BULOI ETA TORLOJUAK
HUSILO ETA AZKOINAK

**Ondo pasa
jaixak!**



Erisono Industrialdea, 3 – 20600 – EIBAR
Tfnoa. 943 121 308 - 943 121 312
www.rlapeyra.com



**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

Ane Mendia
970 kol. zkia.



INDIBA TERAPIAK
ARTIKULAZIO TENPORO-
MANDIBULARREKO ARAZOAK
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
K-STRETCH KLASAK BAKARKA
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA
OROKORREAN
ERGONOMIA HOBETZEKO KLASA
PERTSONALIZATUAK



Arragueta, 20
943 530642

ane_mendia@hotmail.com

San Andresen bihotzak dantzari gaztez taupaka

MIREN AZPIRI eta IRUNE SAEZ • Kezka Dantza Taldeko ikasle eta irakaslea



Miren Azpiri (ikaslea) eta Iruñe Saez (irakaslea) Kezka dantza taldeko kide gazteak dira. Biak San Andres jaien baitako Plazara Dantzara erromerian arituko dira dantzan, bata estreinakoz, bestea, urtero lez. Parte-hartzeak eta plazako dantza giroak gero eta gazte gehiago erakartzen ditu, eta tradizioa belaunaldi berrien bidez indartsu dago.

Elkarriketa **IRATI ALVAREZ**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**

2025ean 32 urte beteko dira Eibarren Plazara Dantzara erromeria lehen aldiz egin zenetik. 1993ko azaroaren 26 hartan, Kezka dantza taldeak euskal dantzak plazara ateratzeko modu berri bat proposatu zuen: ikuskizunetik harago, parte-hartzea, elkarrekin dantzatzea eta dantzaren bidez gozatzeko erromeria. Eibarko San Andres jaien bihotzetako bat bihurtu da gaur egun. Urte hauetan, belaunaldi asko igaro dira Kezkaren dantza ikastaroetatik, baina azken boladan gazteen parte-hartzeak bereziki indarra hartu du. Horren adibide dira Miren Azpiri eta Iruñe Saez: bata ikaslea, bestea dantza-ikastaroetako irakaslea. Tradizioaren eta belaunaldi berrien arteko lotura bizi-bizia dela erakusten dute.

Gogotsu zaudete San Andres jaietarako?

Miren: Bai, oso!

Iruñe: Beti! Jai oso berezia da bai eibartar guztiontzat, bai dantzarietzat. Dantzarietzat bereziki data seinalatua da, ikasturteko lehenengo dantzaldi herrikoia delako. Gogotsu gaude denok.

Miren, ikasle hasiberri bezala, emozionatuta zaudete?

Miren: Bai! Ea eguraldia lagun dugun... Esperientzia berri bat biziko dugu dantzari berriok San Andresen edizio honetan. Lehendabizikoz ibiliko gara plazan dantzan, eta oso pozik gaude.

Zenbatek eman dute izena aurten dantza ikasteko?

Iruñe: Hastapenetan askok eman dute izena aurten: berrogei bat ikasle ditut. Entseguak kaosa izaten dira, zarata aldetik batez ere. Iaz ere gazte askok eman zuten izena, baina aurten “boom” moduko bat egon da. **“Boom” bat?**

Iruñe: Bai. Izena eman duten gazteen bi egoera daude: edo ez dute inoiz dantzan egin, edo txikiak zirenean Kezkan ibilitakoak dira. Azken horietako asko erromerian, plazetan edo farra giroan dantza batzuk egiteko gai dira. Askotan gertatu izan zait hutsetik hasten direnentzat klasea prestatu eta gero ikasleen erdiak dantza dakiela ohartzea. Hala ere, hutsetik hasten direnak badaude, eta klasea horrela planteatuta dago. Orduan, esandakoa: jakintza maila desberdinak daude.

Plazan dantza egiteko gogo dago belaunaldi gazteen artean.

Miren: Askori gertatzen zaigu. Plazan erromeriak daudenean, jendea dantzan ikustean enbidia pixka bat sortzen zait. Beraz, erromeria batean dantzan jakitea zen nire helburua.

Iruñe: Edozein plazatako erromerietan beti egoten da fandango edo arin-arin bat... taldean, borobilean egiten den dantza bat. Nik uste gazteek plazan dantzatzeko jakin nahi dutela.

Zer egiten duzue klasean?



Miren Azpiri eta Irune Saez. YANIRE SAGREDO

Miren: Normalean dantza errazekin hasten dugu klasea, berotzeko. Gero, fandango eta arin-arinarekin jarraitzen dugu. Bi dantza horiek ikasteko zailenak dira. Eta... konturatzerako, ostras, ordua pasa da!

Zenbat hilabete daramatzazue klasean?

Miren: Urria hasieran hasi ginen. Bi hilabete daramatzazu, beraz.

Zertxobait dantzatzen badakizue, orduan.

Miren: Bai, bai! Pauso batzuk konplikuatagoak dira beste batzuk baino, baina bai!

Irune: Sinpletasunez erakusten dizkiegu dantzak, gero

plazan dantzarako arazorik ez izateko. Dantzak arinak badira ere, nahiko ondo moldatzen dira.

Motibatuta ikusten dituzu ikasleak, Irune?

Irune: Oso. Gainera, ikasle gazteek plazara dantzara joateko gogo hori erakusteak asko eragiten du besteengan. Berdin dio gaztea edo heldua izan: jai-giroko gogoa kutsatu egiten da. Lehen, hainbeste gazte ez zegoenean, kosta egiten zen hastapenetako jendeak bi hilabetez dantzan ibilita plazara gerturaztea. Oraingoan, berrogei ikasletik kopuru handia izango da Untzagan.

Arregi - Dominguez
ARRAINDEGIA

Bidebarrieta, 4
943 201138

Ego-Gain, 9
943 681886

San Andres
zoriontsuak

Arrain freskoa eta izoztua
Mariskoak / Ondarruko arraina
Enkarguak hartzen ditugu


DEVI OM

YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapia naturalak

☎ 641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)

Askori errespetua emango dio plazarako saltoa egiteak.

Miren: Normala da hori, eta jende asko begira izaten dela jakinda, are gehiago. Bestalde, egia da plaza beteta egonda jendea ez dela konturatzan dantzan gaizki egiten baduzu. Baina zuk, dantzari berri moduan, ez duzu gauza bera pentsatzen.

Iruñe: Azken entseguan ere esan nien: San Andresak egunik onena da dantzan estreinatzeko. Egun osoko jai-giroa dago eta bakoitza berean ibiltzen da. Ez da Euskal Jaietan bezalako egoera, ez da emanaldi bat. Beraz, lehen aldirako, jai aproposa da. Gainera, irekia eta herrikoia da; nahiz eta nor bere taldearekin joan, edozein sartzen da dantzara.

Miren, zu ere dantza-taldearekin irtengo zara?

Miren: Bai! Lauzpabost pertsona sartu ginen ikastaroan, eta hasieran ezagun genituen —eta orain lagun ditugun— beste batzuekin bat eginda, plana egingo dugu. Izen berezia duen WhatsApp taldea sortu dugu; San Andres jaietan bazkaria sozietatean egin eta dantzara joateko asmoa dugu... Etorkizunerako planak egiteko gogoz gaude.

Azkenik, zer esango zeniokete dantza probatu baina oraindik pausoa eman ez duen gazte edo helduari?

Miren: Oso esperientzia polita dela, eta animatzeko.

Iruñe: Probatzeko. Dantzan hasi aurretik denok gaude

lotsatuta, baina lehen pausoak ematen dituzunean dena errazagoa egiten da. Norbaitek zalantza badu, datozen entseguetara etortzeko gonbita luzatzen diogu: behin sartuta, ez duzu utzi nahi izaten.

“Plazan erromeriak daudenean, jendea dantzan ikustean enbidia sortzen zitzaidan; horregatik ikasi nahi nuen”

“San Andresak egunik onena da dantzan estreinatzeko: jai irekia da, eta bakoitza berean ibiltzen da”





BULEBÚ
Jatetxea

Telf. 843 69 90 11 San Juan kalea, 19

Waterloo

Julian Etxebarria, 4

T. Etxebarria, 8

BAR BUENOS AIRES

KALAKA

Untzaga, 5

KATU
k a l e

BAR KILIKILI
KILIKILI_BURGER

GOSARIAK / PINTXOAK
EGUNEKO MENUAK / AFARIAK
MERENDOLAK / OSPAKIZUNAK

BAR KILIKILI

943 202401 Ibarkurutze, 12

FOXTER BAR

ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA

FOXTER-ek bere gastronomia
bikaina etxera eramaten dizu,
igandetik ostegunera (20:00-22:30)

HAZIDAK • SANDWICHAK • BOKATAK
HAMBURGESAK • MEXIKARRAK

Plaza Barria, 6. / 943 121 255

Ah!natsu eta delitu!!!

B—casa—
ANAKA
.BAR.
Calbeton, 26

Ondo pasa
Sanandresak!

**GOZATU
EGIZUZ
GUREKIN!!!**

**BARATZE
TABERNA
EIBAR**

Bidebarrieta 39
URKIZUKO
PARKEREN ONDOAN

Tel. 943 84 55 03

Gure sukaldako
PLATERAK eta
momentuan
egindako
PINTXO
BEREZIAK,
jatorri-ekitua
ezberdinetako
ARDOEZ lagunduta,
espazio eta giro
atsegina.

NORA LARREATEGI • *Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordea*

“Eibartar orok gozatzeko egitaraua sortzea izan da helburua”

Beste urte batez San Andres bezperako egitaraua prestu dute Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeko kideek. Kantupoteoa, herri-bazkaria, musika eta jai giroa izango dira ardatz aurten. Auzolanaren balioa azpimarratu dute, kritikei ere irmo baina baikor erantzunez. Herritar guztiei luzatu diete parte hartzeko gonbidapena, “jai euskaldun, feminista eta parte-hartzaile” baten alde.

Elkarrizketa **IRATI ALVAREZ**

San Andres bezpera ate joka dago, eta horrekin batera, Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak egitarau zabal eta herrikoia prestatu du. Urtez urte, eibartarren parte-hartzean eta auzolanean oinarritutako jai-giroa sustatu nahi dute, eta aurten ere bide bera hartu dute.

San Andres bezperako egitaraua antolatu duzue beste behin. Gogotsu zaudete?

Data berezia da guretzat; urteak goaz egitaraua antolatzen, eta aurten ere ildo beretik jarraitu dugu. Egia da azken urteetan jaieguna asteburuaren buetan tokatu dela, eta horrek egitaraua zoramena izatea ekartzen duela, baina gu beti gustura! Aurten, jai bezpera zapatua izanda, egun osoko egitaraua egitea aukera onena zela iruditu zaigu, eta bertan parte hartzeko deia egin nahi diegu eibartar orori: ume, gazte zein helduei!

Lehendabizikoz kantupoteoa antolatu duzue Gure Eskurekin batera. Nondik dator ideia?

Bai, lehenengo aldia da Gure Esku Dago-rekin batera zerbait antolatzen duguna. Duela denbora gutxi barne-prozesu batean murgildu ginen, eta bertako ondorio garrantzitsuenetako bat herriko eragile zein pertsonen elkarlana sustatzea izan zen. Bide horretan gabiltza

prozesua amaitu zenetik. Oraingoan, Gure Esku Dago-tik egin digute proposamena kantupoteoa antolatzeko. Proiektuaren nondik norakoak gurekin guztiz bat datozela ikusita, ideiarekin aurrera jarraitu dugu. Asmoa herriko ahalik eta eragile ezberdin gehien biltzea da, aldarri garbi batekin: erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarria. Horren baitan sare polit bat eratu dugu, eta gonbidapena luzatzen diegu kantupoteora gerturatu nahi duten herritar guztiei.

Ostean, bazkaria egingo duzue Eibarko Klub Deportiboaren laguntzarekin. Nolako harremana duzue Klub Deportiboarekin?

Eibarko eragileetan pentsatuta, eibartar denontzat herrikoi eta parte-hartzailetzat okurritu zitzaigun eragileetako bat da Klub Deportiboa. Klubak herriko kirol, euskara zein kultura munduan duen garrantzia kontuan hartuta, gure egitarauan parte hartzeko eragile ezin hobea zela iruditu zitzaigun. Gure asmoa planteatu eta berehala hasi ginen bi eragileok ideari forma ematen, eta, azkenean, zapatuan giro herrikoi eta euskalduna ardatz izango duen herri-bazkaria izango dugu. Tamalez, sarreraren salmenta astelehenan amaitu zen, baina bazkalostera gonbidatuta zaudete denok!

Bazkalostearen ondoren musikaren txanda izango da. Zer antolatu duzue?

Bazkariko giroarekin jarraitzeko pentsatuta antolatu dugu bazkalostea, eta jai giroan murgiltzen hasteko, zer hobe kanta eta dantza baino? Beraz, denok animatzen zaituztegu bertara gerturatzeraz! Gainera, jarraian La Tuna Bando Eibarko txaranga izango da kaleetan zehar, ibilbidea karpan bukatuz.

Nola antolatzen duzue San Andres eguna Udalarekin? Zein da zuen harremana Udalarekin programazioa eta logistikaren aldetik?

San Andreseko egitarauaren antolaketa denbortarte motzeko prestaketa izaten da; izan ere, guretzat ez da hainbeste denbora igaro Arrateko jaiak bukatu zirenetik... Udalarekin dugun harremana ere egoera horrekin bat dator: logistika aldetik egitarauak ahal den heinean bateratzen saiatzen gara, baita material eta ordutegien beharrak adostu eta lotzen ere. Hala ere, askotan aipatu izan dugun moduan, erraztasun gutxi jasotzen ditugu Udalaren partetik.

Hausnarketa prozesua egin zenuten duela gutxi. Prozesu hori beharrezkoa izan da oraingo egitaraua antolatzeko?

Aurretik esan bezala, prozesuko ondorio garrantzitsuenetako bat herriko beste eragileekin harremanak sortzea izan da, egitarauak beti diogun moduan herri-ritik eta herriarentzat sortzeko helburuarekin. Egitarau honetan nolabait lortu dugula uste dugu, beti ere hobekuntzarako tartearekin. Nola ez, hau guztia gauzatzeko, herriaren parte-hartzea ere ezinbestekoa

“Auzolanetik gatozen herria gara, eta gure jarduna horretan ardazten dugu: ez da magia, herri lana da”



FUNEUSKADI
Grupo Ansoaia

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerakadi

TANATORIO FUNERARIO
Argoitiari

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27 Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Elgoibar: Xaillon, s/n, SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan) Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 15
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Urkizu, 18
943120194

MUGIKA

Harategia - Urdaitegia
Carnicería - Charcutería

Baserriko Haragia

da, eta hori oraindik gabeziatzat identifikatzen dugu. Azkenik, Brigada Moreari eta espazio seguruak sortze aldera egindako lanketari duen garrantzia ematea ere prozesuaren helburu nagusietako bat da. Ikasturtera zein egitaraura begira hori lantzen ari gara. Beraz, egon adi datozen deialdietara!

“Ez da magia, herri lana da” leloa aldarrikatu duzue askotan. Oraingoan ere horrela izango da?

Noski! Guretzat ezinbestekoa den leloa da, eta horretan jarraituko dugu. Auzolanetik gatozen herria gara, eta gure jarduna horretan ardatzen dugu. Beraz, behin eta berriro aldarrikatu nahi dugu auzolanaren kultura eta herritar orok honetan parte hartzeak duen garrantzia.

Jaso duzue kritikarik? Horrela bada, zer erantzungo zeniekete?

Argi dago gure jarduna ez dela guztien gustukoa, eta, noski, kritikak ere jasotzen ditugu. Batzuetan, kritika eraikitzaileak dira, gure jarduna hobetzen laguntzen digutenak, eta horiek gustura jasotzen ditugu. Beste batzuetan, aldiz, gure jardunari legitimitatea kentzea eta proiektuaren aurka egitea besterik bilatzen ez duten kritikak izaten dira. Azken horiei gutxi diegu erantzuteko: gure egitarauetan parte hartzera gonbidatzea eta jaiez gozatzea etortzea, besterik ez.

Nola ikusten duzue jai batzordearen rola Eibarren?

Urteetan zehar argi utzi dugu alternatiba garena; eibartarrok jai giro euskaldun, parte-hartzaile, herrikoi eta feminista batez gozatzeko sortzen ditugu espazioak, eta uste dugu badugula gure lekua herrian. Bistakoa da gero eta jende gehiago eta anitzagoa batzen dugula –adinari, kulturari eta giroari dagokienez–, eta hori oso positiboa da.

JHH jai herrikoi, euskaldun, feminista eta parte-hartzaileak sortu eta aurrera eramateko sortu zen, eta horretan jarraitzen dugu, belaunaldi berriak proiektura batuz.

Azkenik, zer mezu helarazi nahi diezue herritarrei San Andreseko jaien inguruan?

Egitaraua eibartar orok parte hartzeko pentsatu dugu; beraz, ume, gazte, heldu zein nagusiei dei egin nahi diegu parte hartzera. Untzagako karpan eta kaleetan ikusiko dugu elkar. Azkenik, mezu argi bat helarazi nahi dugu: esan bezala, eibartar orok parte hartu eta gozatzeko egitaraua sortzea izan da helburua, baina denok gatoz gozatzen; beraz, ez badakizu egoten, ez zara ongi etorria! Brigada Morea antolatuta egongo da egitarau osoan; beraz, erasorik ikusi edo jasan baduzu, hurbildu zapi moredun kideengana.



San Andresetako karropoteoa, JHHK antolatuta. JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO

vinos Solera Eibarresa

1939

Estrella Galicia



Gabonetako Topa onena, gurekin

Gure ardo, likore eta garagardoekin,
zure ospakizunak paregabeak
izango dira.

Gerturatu zaitez gure biltegira
gabonetako **promozioak**
ezagutzera eta **Oparia Eskuratu**

Egin gutxieneko eskaera eta
Opari bat izango duzu zain.



Zaporea Oparitu. Gabon Zoriontsuak!
1939tik, zure konfiantzako edari banatzailea

Ibur Erreka Poligonoa z/g - Eibar - Tel.943201353-943206614
Mobila: 606984166

Astelehenetik Ostiralera: 8:00etatik - 18:00etara
www.vinosconsolera.com - info@vinosconsolera.com

Miranderen figura ezagutarazteko jardunaldiak Eibarren



UEUk antolatutako “Miranderen berrirakurketa bere mendeurrenean” jardunaldiak Jon Miranderen figura eta haren pentsamendu dibergentea berriro mahai gainean jarri dituzte. Jardunaldia gaur, azaroak 28, barixakua, egingo da Eibarren, Markeskoa Jauregian, 09:00etatik 17:00etara. Arratsaldean, berriz, poesia erreztaldia egingo da 18:00etatik 19:00etara, Ipuruako Merkatu Plazan.

Jon Mirande (1925–1972) euskal literaturako figura berezienetako eta eztabai-dagarrienetako bat izan zen. Askorentzat oraindik ere ezezaguna bada ere, poesia eta ipuingintza-ren bidez garaiko euskal literaturaren mugak hautsi zituen. UEUk haren jaiotzaren mendeurrena baliatu du sortzaile heterodoxoaren ekarpena berriz aztertzeko. Horri buruz hitz egin dugu Oskar Arantzabal Iraeta UEUko Ekonomia Sailburu eta Talde Eragileko kidearekin.

Arantzabalek nabarmendu duenez, “Mirande XX. mendeko poetarik garrantzitsuenetako bat izan zen. Probokatzaila zen eta azaleratzen zituen ideiak ez ziren politikoki zuzenak. Aldi berean, hizkuntzalaritza gaitasun handia zuen eta itzultzaile bikaina izan zen”. Haren hitzetan, jardunaldia Miranderen ekarpena zabaltzeko modua da: “Haren lana askorentzat oraindik ere ezezaguna da, eta hutsune hori bete behar da”.

Talde Eragileko kideak gogoraz duenez, Jon Mirandek “ez zuen literatura soilik landu; saiakera politikoan ere ekarpen sakona egin zuen”. Mirandek “garaiko egitura politikoak kritikatzeko ausardia” izan zuela adierazi du Arantzabalek: “Demokrazia faltsu batean bizi garela zioen behin eta berriz, betiere ikuspegi intelektual zorrotz batetik”. Miranderen pentsamendu politikoaren muina argia zela nabarmendu du: “Askatasuna. Gure herriaren eta Europako beste askorena. Hori zen haren ardatza, eta hortik egiten zituen bere analisi sozial eta politikoak”. Horregatik, haren ahotza “heterodoxoa, dibergentea eta probokatzaila” izan zen, baina “oso koherentea eta bere garaiko inertzien gainetik zegoena”.

Miranderen lanaren ezaugarriak gogoratuz, Arantzabalek azaldu du poesian eta ipuingintzan gai tabu ugari landu zituela, hala nola erotismoa, heriotza edo paganismoa. Itzulpen garrantzitsuak ere egin



'Mirande, film bat egiteko zirriborroa' dokumentaletik hartutako irudia.

zituen, tartean Poe, Kafka eta Baudelaireren lanak. Idazleak eleberri bakarra utzi zuen: 'Haur Besoetakoa'. Bere garaian ez ezik, gaur egun ere obra polemikoenetakoa dela dio Aranzabalek: "Eleberria zentsuratua izan zen, eta moral judeo-kristauaren aurkako testu bortitz eta kontzientea da. Horregatik da

Mirande gaur egun ere garrantzitsua: irakurleari galdera deserosoak planteatzen dizkiolako eta euskal literaturaren mugak zabaltzen dituelako". Eleberria 1954an idatzi bazuen ere, 1971ra arte ez zuten argitaratu, idazlea hil eta bost urtera.

Jardunaldien jatorriaz galdetuta, Aranzabalek gogoratu du Jon Mi-

"Miranderen lana askorentzat oraindik ere ezezaguna da, eta hutsune hori bete behar da"





"Demokrazia faltsu batean bizi garela zioen behin eta berri, betiere ikuspegi intelektual zorrotz batetik"

randeren omenez egindako lehen topaketak 1982an antolatu zirela Eibarren. Aurtun, mendeurrenarekin bat eginez, UEUK dinamika hori berreskuratu du Iruñean eta Baionan egindako saioekin. "Eibarraren egingo den jardunaldia gure herriaren zatiketa administratiboaren lekuko ere bada, Mirandek be-

rak 'deserria' deitzen ziona", adierazi du. Saioetan, idazlearen ekarpen literarioa, harreman pertsonalak eta pentsamenduaren gaurkotasuna aztertuko dira.

Miranderen poesia biziberrituta

Matrikulazioa itxita dagoen arren, Oskar Arantzabalek nabarmendu du jende guztiarentzat zabalik geratzen den ekitaldi bat badela: poesia errezitaldia. Errezitaldia 18:00etatik 19:00etara izango da, Ipuruako Merkatu Plazan, eta sarrera irekia eta doakoa izango da. Ihitz Iriart eta Joseba Sarrionandia izango dira oholtzan —biak ala biak Miranderen unibertsoa ulertu, bizitu eta interpretatuko dute—.

Azkenik, Arantzabalek du jardunaldiek Miranderen pentsaera gaur egungo ikuspegitik berrikusteko aukera emango dutela: "Herriar ororentzat esperientzia kultural eta intelektual aberasgarria izango da".

60. urteurrena

GORA SAN ANDRES!



GOSARIAK,
PINTXOAK,
TARDEOAK,
PARRANDAK,



DUTE IZENA

Calbetón, 6 | 943 20 85 86



Gora Sanandresak!

“Maite dudana zuzenekoa da: publikoarekin egotea, bandarekin, bidaiatzea... bizia ematen dit”

ANNA DUKKE • Musikaria



Domekan, Musika Klubeko beste kontzertu batez gozatzeko aukera izango dugu. Kasu honetan, artista Gaztela-Mantxatik dator, baina AEB barrenetik datorrela esanez gero, lasai sinestuko genuke. Izan ere, Anna Dukkek rythm&blues, Delta blues eta gospel doinuak ekarriko dizkigu Coliseora, 19:00etan.

Elkarrizketa **EKHI BELAR**

Anna Dukke bidaiaria eta musika-esploratzailea izan da. AEB-n bi egonaldi eta Mexikon bidaia luzea egin ondoren, bere bizi eta arte esperientziak bi EP eman ditu: Broken Chains eta Black Honey. Abenduan izango dugu bere lehen lan luzea entzuteko aukera.

Mantxakoa izanik eta Sierra Morenan hazia, nola iritsi zinen erritmo amerikar sakonetara?

Argazkigintza ikastera joan nintzen Tomellosoko Arte Eskolara, Mantxaren bihotzean dagoen herrira. Han, musika-zirkuitu txiki bat deskubritu nuen, bi areto oso aktiborekin: bata mod-mundura orientatuagoa, eta bestea rockerragoa. Bi eszena horien artean, hasieran jakin-min hutsagatik liluratzen ninduen musika horrekin blaitzen joan nintzen, eta gaur naizenera arte gidatu ninduen azkenean.

Mexikon eta Estatu Batuetan ibili zinen hainbat hila-betez, musika horren erroetan murgilduz. Nola eragin zizun bidaia hark?

Lau bidaia horiek, esperientzia pertsonal harrigarriak oparitzeaz eta pertsona gisa asko hazi arazteaz gain, sakon elikatu ninduten maila musikalean. Bi herrialdeetako folkloreak blaitu nintzen, ez bainintzen hirietan

bakarrrik geratu: Mexikoko herri txikietara joan nintzen eta Estatu Batuetako herri txikietan ere bizi izan nintzen. Horrek aukera eman zidan bertako jendearekin bizitzeko, ikusteko nola ulertzen duten musika, nola exekutatzen duten eta, batez ere, nola bizi duten.

Publikoari dagokionez, alde handiak daude hangoa-ekin alderatuta?

Bai, alde handia dago Mexikoko, Estatu Batuetako eta Europako ikusleen artean. Estatu Batuetan publikoa oso zorrotza da, arreta handiz entzuten du, baina hotzagoa eta urrunagoa da, gehiago egoten da hesiaren atzean. Mexikoko publikoa, aldiz, oso gertukoa da, beroa, beti nahi dute zurekin argazki bat atera, solasean aritu... Asko gogorarazten didate Espainiako publikoa, oso adierazkorra eta parte-hartzailea ere badena. Mexikon jendeak asko dantzatzen du, Espainian bezala.

Nolakoak izaten dira zure zuzenekoak?

Nire kontzertuak eklektikoak, kementsuak eta emozionalak izan ohi dira. Biziak dira, interpretatzen du-dan guztia konposizio propioak direlako, eta abesti bakoitza nire sentimenduak erakusteko modu bat da. Publikoak kontzertua nirekin bizitzea gustatzen zait, geldirik egoten uzten ez dizutenen energia, izerdia eta rock and rolla sentitzea.



Kontzertuetan dena ematen duen musikaria da Anna Dukke.

Momentuz bi disko atera dituzu (eta ez dakit hirugarrena egosten ari zaren). Estudiora sartzea ere gustatzen zaizu edo nahiago duzu zuzenekoaren adrenalina?

Bai, hirugarren lana prestatzen ari naiz, eta nire lehen LPa izango da, ofizialki argitaratzen dudana lehen albuma. Orain arte bi EP eta CD formatuko bilduma bat nituen, bi EP horiek bonus track pare batekin biltzen zituen, publikoak izugarri eskatzen zidalako CDa. Disko berri hau, azkenean, abenduan aterako da. Aspalditik prestatzen ari naizen ametsa da, pista askorik eman nahi ez badut ere oraindik nahiago dut spoiler-ik ez egin. Eta zintzoa izanda: ez zait batere gustatzen estudioan sartzea. Oso aspergarria iruditzen zait. Oso urduria naiz, hainbeste denbora geldirik egotea kostatzen zait, eta gainera oso perfektionista naiz. Hartualdi bat grabatzen dut eta mila aldiz errepikatu nahi dut perfektua izan arte, eta horrek estresa sortzen dit. Benetan maite dudana zuzenekoa da: show aurrekoa, showa eta gerokoa. Publikoarekin egotea, bandarekin, bidaiatzea, merchandisinga prestatzea... Prozesu hori guztia gustatzen zait. Bizia ematen dit.

Eibarko kontzertua birako azkena izango da?

Bai, Eibarko kontzertua 2025eko tourraren itxiera izango da, eta gainera nire lehen kontzertua izango da Gipuzkoan. Ondoren hiru asteko atsedenaldia izango dut (kontzertuetakoa, baina abiatze kanpaina osoa prestatu beharko dut), energia berriz kargatu eta hurrengo tourra indarrez hasteko.

Martxoan hasi zinen eta kontzertu pila bat eman dituzu. Nolakoa izan da ibilbide hori guztia?

Aurtengo bira nahiko gogorra izan da. Taldean aldaketa asko egon dira, eta horrek behartu nau zerotik behin baino gehiagotan hastera, hasieratik musikari berriekin entseatzera, bakoitzera egokitzen... eta horrek pazientzia handia, esfortzu handia eta baita dirua ere behar izan du. Mentalki higatu egin nau, ez dizut gezurrik esango, baina hau denez nire bizitzako ametsa, jarraitzeko gogoa ez zait inoiz bukatzen. Egia esan, taldean izandako aldaketei esker musikari ikaragarriak ezagutarazi ditut, eta haiekin ikasteko eta konektatzeko aukera izan dut. Ez dut sentitzen atseden hartzeko momentua denik, baizik eta dena ematekoa, barruan daukadanari ahalik eta zuku gehien ateratzekoa eta hazten eta musika partekatzen jarraitzekoa.



Eguaztenean ospatuko dugu Euskararen Eguna “Emaiozu berbia euskeriari” lelopean

Abenduaren 3an, eguaztena, ospatuko dugu Euskararen Eguna Eibarko Euskalgintzako taldearen eskutik. 19:00etan hasiko da egun horretarako prestatutako ekintza berezia: “Untzagako harmailetan elkartuko gara. Aurten ere argia etxetik ekartzea eskatuko diogu jendeari, linternak, frontalak... eta iazko koreografia bera dantzatzuko dugu “Euskal Herrian Euskaraz” abestiaren bertsio batekin”, diote antolatzaileek. Behin hori amaituta, orduan etorriko da aurtengo berrietasuna “Emaiozu berbia euskeriari”

lelopean: “Harmailetan jende artean azalduko da esaldi hori eta, gero, “berbia” hitza desagertu eta berriak azaltzen joango dira, jendeak nahi duen hitza jarriko dio esaldiari: ilusioa, maitasuna, irribarrea..., nork bere berba emanez euskarari”. Herriar eta euskaltzale orori dei egiten diete euskalgintzatik, “abenduaren 3an ere aldarrikatu dezakegun guztiok elkarrekin eta ozen, Eibarren euskaraz bizi nahi dugula”.

KOREOGRAFIAREN BIDEA



Zorroak egiten arratsalde ederra pasa zuten familia berbalagunek

Diru-zorroak egiten ikasteko saioa antolatu zuen barixakuan ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programe-tako familientzat. Ikastaroak izan zuen harrera ona ikusita, bat behar-rean bi saio antolatu behar izan zituen ...eta kitto!-k eta, bi taldetan banatuta, berrogeitik gora haur eta helduk jardun zuten zorroak egiten.



Gaur egingo da San Andres Bertso Jaialdia Coliseon

20:00etan zapalduko du Coliseoko oholtza aurtengo bertsolari-boskoteak: Alaia Martin, Unai Iturriaga, Joanes Illarregi, Eneritz Artetxe eta Sustrai Colinak jardungo dute bertsotan Mikel Arrillaga gai-jartzailaren eskutik. Sarrerak 18:30etatik aurrera jarriko dira salgai Coliseoko leihatilan (8 euro). Jaialdia hasi aurretik, bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira urtero moduan. Aurten, Hernani aldera joan da helduen mailako lehenengo saria, Iñigo Legorburu izan baita garaile. Bigarren saria, berriz, Eibarren gelditu da, bigarren bereganatu baitu sari hori Aimar Goenagak. Gaztetxoenen mailan Luke Litagok eraman du lehenengo saria eta Peru Gorosabelek bigarrena.



BASTROTEKA BOSSA

Ego gain, z/g

Ongi etorriak zuen etxera!!

943 20 67 53



URKIZU, 22 943128086

Aguñazpi

GOSARIAK

MENU BEREZIAK ENKARGUZ

Plater konbinatuak, Razioak, Bokatak, Hanburgesak

Amegapentian 07.00 euro asteburuetan 08.00 euro



GILDA TRADIZIONAL ONENA

BACO-LEKU EGO-GAIN

IX. GILDA LEHIAKETA
PIBADOEN

Ego Gain 2-4
TL 670 55 67 56



ONDO PASA JAIETAN

GORA GURIDI

SAN ANDRES!



Isasi, 3 / 943041645

CL

PINTXOAK
BAZKARIAK
AFARIAK

GURE LEKU



Untzaga, 11

Laurel & Hardy




Ondo pasa!!

Jai zoriontsuak!



Arkupe Taberna

Isasi, 2 943 88 50 18



Turkey

Gosariak · Pintxoak · Kazeletak · Bokatak
Hanburgesak · Asteburuko platerak · Enkarguak

Ongi etorri guztiak San Andresak!!!

Turkey, 24 943 70 13 21



ONDO PASA

SANANDRESETAN





Garaipen garrantzitsua lortu du CD Urki-ren lehen taldeak

E.B. Ohorezko Erregional Mailako CD Urki-k neurketa garrantzitsua zuen asteburuan, sailkapenean aurretik zuen Orioko hartu baitzuen Unben, eta irabaztea ia derrigorrezkoa zuen beheko postuetatik alde egiteko. Eibartarrek ez zuten hutsik egin eta nagusi izan ziren, 4-0 gailenduz. Hurrengo jardunaldian, sailkapenean azken-aurrea doan Mutrikuri egingo dio bisita.



Ipurua gimnasia erritmikoko taldeak Espainiako Txapelketan izan dira

E.B. Castellón jokatu den Espainiako Txapelketan egon dira asteburuan Ipurua klubeko gimnastak. Emaitzei dagokienez, honakoa lortu dute klubeko taldeek: infantilak 60. izan dira 112 taldeetatik, kadeteek 13. postuan amaitu dute (118 taldek hartu zuten parte) eta jubenilek 95. amaitu zuten (160 talde aritu ziren).



Atletismoko Udazkeneko PLP-a Unben jokatu da bihar

E.B. Bihar, azaroak 29, 10:30etik aurrera, Eibarko Klub Deportiboak eta Gipuzkoako Atletismo Federazioak antolatuta, luzera, pisua eta jabalina espezialitateetako Udazkeneko Partaidetza Libreko Probak (PLP) jokatu dira Unbeko atletismo estadioan.

Honakoa da aurreikusitako proben programa: 10:30ean, pisua 3kg emakumezkoak; 11:00etan, luzera emakumezkoak; 11:00etan, jabalina gizonezkoak; 12:00etan, jabalina emakumezkoak; eta 12:00etan, luzera gizonezkoak.



Elkarren aurka lehen aldiz jokatu dute CD Urki eta SD Eibar-en nesken taldeek

E.B. Zapatuan, azaroak 22, partidu historikoa jokatu zen Unben, CD Urki eta SD Eibar klubaren emakumezkoen taldeak elkarren aurka aritzen ziren lehen aldiz izan zelako. Infantil mailan jokatu dute talde biek eta zapatuko partiduan talde gorriurdina (neurketa hone-tan, zuri-berdea) atera zen irabazle, 0-2.



Eneko Korta maila bikainean itzuli da judora

E.B. Hainbat urtetan beste kirol diziplina batean ibili ondoren, judora itzuli da Eneko Korta, eta nola gainera. Kalamua klubeko kidea Gipuzkoako Junior Txapelketan lehiatu zen domekan eta 5. postua lortu zuen bertan. “Bere helburua lehiakorra izatea eta Randoriak batzea zen, eta aise bete zuen helburu hori”, azaldu digute Kalamuakoek.

Lehen lehia galdu egin zuen etsaiaren Wasari bikoitzaren ondorioz, baina irabazteko aukerak izan zituen. Gero, bigarren aukeran, garaipena lortu zuen Ippon bikain batekin eta hurrengo neurketan ere garaile irten zen Ne Waza (lurreko judoa) lan bikainarekin. Finalerdietan, ostera, oso etsai gogorra izan zuen aurrean eta indar hustuta hartu zuen gainera.

Zapatuan, abenduaren 20an gerriko beltza eta daniarra lortzeko azterketak prestatzeko ikastaroa egin zen Tolosako Usabal kiroldegian. Kalamua klubetik Javier Lamas (gerriko beltzeko lehen Dan-a lortzeko) eta Jon Montiel (hirugarren Dan-erako) aurkeztuko dira.



Urbat-eko gizonezkoek lehen puntua lortu dute eta emakumezkoak geldiezin dabilta

E.B. Sei jardunaldiren ondoren, Bigarren Nazionalen jokatzeko duen Urbat Urkotronik-eko gizonezkoen taldeak lehen puntua eskuratu du Union Teneriferen kontra. Eibartarrek eta kanariarrek 14na egin zuten eta, ondorioz, neurketa penaltietan erabaki zen. Hor etxekoak izan ziren nagusi, 5-3, eta partidua 19-17 amaitu zen. Dena dela, hasierako berdinketarekin, Urbat-ekoek puntu bat lortu zuten.

Euskal Herriko Ligan jokatzeko duen emakumezkoen senior taldeak, bestalde, Logroñorako jo zuen eta 4-19 irabazi zien errioxarrei. Bolada bikainean daude eibartarrak eta, 12 punturekin, sailkapeneko hirugarren postuan daude kokatuta.

Gizonezkoen seniorretako B taldeak, bestalde, 9-11 galdu zuen etxean Sestaoren aurka. “Ezuste-ko porrota”, Urbatekoen berbetan.

Domekan, azaroak 23, Urbateko harrobiko taldeek bi partiduko jokatu zituzten WP Donostiaren aurka. Eibarko infantilek 12-10 irabazi zuten eta kadeteek 11-4.

Asteburu honetan, beste jardunaldi bat jokatu dute Urbat Urkotronik-eko taldeek. Bigarren Nazionalen jokatzeko duen gizonezkoek Tenerifeko beste talde bat izango dute aurkari, baina oraingo honetan Tenerife Echeyde B eta etxean jokatu dute, Paco Yoldi kiroldegian, bihar, 20:15ean.

Euskal Herriko Ligako emakumezkoek ere etxean jokatu dute, Orbean, bihar, 13:30ean, CW Lautadaren aurka.

Kadeteetan bi partiduko egongo dira. Bata gaur, 21:15ean, Orbean, Urgara Txingudiren kontra; eta bestea bihar, 18:00etan, CN Easwinen aurka, Paco Yoldin.



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Bidebarrieta, 20

Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar

ETXERA ERAMATEN DIZUGU

943 20 16 69



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

- Gizonezkoen 2. Maila**
Racing Santander - EIBAR (etzi, 16:15)
- Errege Kopa**
Pontevedra - EIBAR (aben. 3, 21:00))
- Gizonezkoen 2. Maila RFEF**
EIBAR B - Deportivo Aragon (etzi, 12:00)
- Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)**
Mutriku - URKI (bihar, 17:00)
- Erregionaleko Gorengo Maila (gi)**
EIBARTARRAK - Ilintxa (gaur, 19:30)
- Jubenilen Ohorezko Maila (gi)**
Logroñes - EIBAR (etzi, 16:00)
- Jubenilen Nazional Liga (gi)**
Arratia - EIBAR B (bihar, 18:15)
- Jubenilen Euskal Liga (gi)**
Lakua - URKI (bihar, 18:15)
- Kadeteen Euskal Liga (gi)**
Antiguoko - EIBAR (etzi, 10:35)

ESKUBALOA

- Zilarrezko Maila (em)**
Beti Onak - E. ESKUBALOA (bihar, 16:30)
- 1. Maila Nazionala (gi)**
E. ESKUBALOA - Pulpo (bihar, 19:00)
- Seniorren Euskadiko Liga (gi)**
Ereintza - E. ESKUBALOA B (bihar, 15:45)
- Seniorren 1. Lurraldekoa (em)**
EIBAR ESKUBALOA B - Saieko (bihar, 16:45)

SASKIBALOA

- Gipuzkoako 1. Maila (gi)**
Saski Axular - ART. JUANTXO (bihar, 18:00)
- Gipuzkoako 2. Maila (em)**
Mundarro - EIBAR SASKI. (bihar, 20:15)

WATERPOLOA

- 2. Maila Nazionala**
URBAT - Tenerife Echeyde B (bihar, 20:15)
- Euskal Herriko 1. maila (em)**
URBAT - Lautada (bihar, 13:30)



Jose Antonio Nuñezek irabazi du Euskal Herriko 35. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa

E.B. Aramaioko Etxaguen auzoan jokatu zen asteburuan Euskal Herriko 35. Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren finala eta Sanandreseko Jose Antonio Nuñezek lortu zuen txapela, 30 txirlorekin. Bigarren postuan Elgetako Gorka Bereziartuak amaitu zuen 25 txirlorekin eta hirugarren Jabier Urkidi (MX3T ‘A’) izan zen, 22 txirlorekin. Sail-

kapen orokorreko lehen eibartarra Bittor Rodriguez izan zen, 20 txirlorekin, eta emaitza horrekin, Asola Berriko bolariak lehen postuan amaitu zuen nagusien mailan. Emakumeen artean, Asola Berriko Enara Montielek 3. postuan amaitu zuen, 11 txirlorekin, UDAko Isana Gorosabelen eta Nerea Leteren atzetik sailkatuz.

Txistorra Eguneko rifen zenbakiak atera dira

E.B. Txistorra Egunean zehar rifak erosteko aukera egon zen eta Txirrindulari Elkarteak jakitera eman du zenbaki saridunen zerrenda. Sariak, abenduaren 15etik 19ra jaso ahal izango dira elkartearen bertan (Pagaegi, 3) 19:00etatik 20:00etara. Zalantzarik izanez gero, clubciclistaebarres@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Irudian dituzue zenbaki sarituak.

XXL TXISTORRA EGUNA 2025					
LEHEN SARI NAGUSIA					
687					
TARTEKO HELMUGA SARIAK					
805	561	1100	458	32	
SARI BEREZIAK					
327	317	810	108	348	
690	530	754	580	381	
8	477	629	39	478	
802	468	603	1319	261	
478	588	411	326	436	
LEHENENGO SARI NAGUSIA			BIGARREN SARI NAGUSIA		
558			498		

Albiste gehiago



EUSKARAREN EGUNA 2025

ABENDUAK 3, ASTEAZKENA

19:00 UNTZAGAKO HARMAILETAN

18:00 MINTZODROMOA UNTZAGA PLAZAN

**EIBARKO
EUSKALGINTZA**

eta kitto!
euskara elkartea

EKARRI LINTERNIA ETXETIK!


Eibarren
AKEBRI

MAITASUNA

ERRESKETUA

ANIZTASUNA

KOLOREA

KIROLA

EMAIOTZU

JAIA

BERBIA

EUSKERIARI!!

UMOREA


DANTZA

ILUSIOA

JOLASA

ALAITASUNA

IRRIKARRA



Bihar da Exfibar erakusketa ikustera joateko azken eguna

S.H. Aurreko asteburuan, domekan zabaldu zuten *Exfibar 2025 - LVI. Seilu erakusketa* Portalean. Eibarko lehen Musika Banda sortu zela 141. urteurrena bete dela eta, horren aitzakiarekin, gai nagusi modura Eibarko Filatelia eta Musika Banda aukeratu dute aurten. Arrate Filatelia Elkartek urtero antolatzen duen erakusketak bihar (zapatua, azaroak 29) itxiko ditu ateak, baina oraindik badago ikustera joateko aukera: gaur 18:00etatik 20:00etara; eta bihar 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara (Argazkia: Eibarko Udala).



“Henko” deitzen da Cobra taldearen disko berria

S.H. Hainbat urtetako geldialdiaren ondoren, Cobra rock/metal taldeak disko berria argitaratu du: *Henko*. Lanak sei abesti ditu eta plataforma digitaletan entzun daiteke dagoeneko (biniloa eta CD-a erosteko aukera ere badago). Kokein taldeko bateria-jole den Haritz Lete eibartarrak jarraitzen du abeslari moduan, eta disko honetan lagun baten kolaborazioa izan dute: Zaloa Urainek (Kokein) koroak jarri dizkio *Drawn to the Flame* abestiari. Diskoa aurkezteko bira aurreko zapatuan hasi zuen taldeak.



Txirrindularitzari buruzko erakusketa eta mahai-ingurua Untzaga gizarte etxean

S.H. Bihar (azaroak 29) beteko dira 25 urte Untzaga gizarte etxea zabaldu zutenetik, eta hori ospatzeko antolatu dituzten ekitaldien barruan, erakusketa “oso berezi bat” zabaldu zuten aurreko domekan: *Eibarko Txirrindularitza*. Antolatzaileen berbetan, “XX. mendearen hasieratik Eibarren antolatutako txirrindularitza-lasterketen atzera begirako argazki batean datza eta, bereziki, Eibarko Txirrindularien Elkarteari omenaldi gisa, gertaera horiek guztiak posible egin zituzten eibartar askoren argazkiak bildu ditugu. Kartel eta maillot historikoak ere ipini ditugu ikusgai”. Indurain, Gianni Bugno, Igor Astarloa, Amets Txurruka, Abraham Olano, Txomin Perurena, Haimar Zubeldia eta beste txirrindulari ezagunen maillotak ikus daitezke, “baita txirrindularitzarekin zerikusia duten beste elementu batzuk ere, bisitariari gustatuko zaizkionak, zalantzarik gabe”. Astelehenetik barixakura 19:15etik 21:00era bitartean bisitatu daiteke; eta, zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara. Bestetik, erakusketaren harira, gaurko mahai-ingurua antolatu dute, izen handiko txirrindulariekin, Eibarko txirrindularitzako pasadizoei buruz hitz egiteko. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta sarrera libre da.

Mercedes Kareaga Bekaren bigarren deialdia egin dute

S.H. Eibarko Udalak, EHU/UPVren laguntzarekin, Mercedes Kareaga Bekaren II. edizioaren bigarren deialdia jarri du martxan. Ikergaiak *Instrukzio Publikoa Eibarren (1880–1996)*. Herriko maistrak du izena. Lanak aurkezteko epea zabalik dago, abenduaren 1era arte. Informazio gehiago: www.eibar.eus.



“Eibar lehen eta orain” erakusketa Topalekun

S.H. Eibarko Artista Elkartearen eskutik gaur zabalduko dute *Eibar lehen eta orain* izenburuko erakusketa Topalekun. Artisten Elkarteko bazkideek lagatako margolanak, marrazkiak, maketak eta bestelako lan batzuk bildu dituzte erakusketa honetan, “antzinako Eibar, gaur egungoa eta etorkizuneko irudikatze”.

Abenduaren 14ra arte egongo da ikusgai, ordutegi honetan: astegunetan 18:00etatik 20:00etara; eta aste-buru eta jai-egunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



Ondare Saria emango diote martitzenean Elena Barrenari

S.H. Elena Barrena Osorok 2025eko Ondare Saria jasoko du hil ondoren. Saria emateko ekitaldia abenduaren 2an izango da, Eibarko udaletxeko ekitaldi aretoan, Elena Barrenaren jaioterrian. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak historialaria hil osteko 2025eko Ondare Sariarekin aintzatestea erabaki zuen, Gipuzkoako eta Euskal Herriko historiaren ikerketari eta zabalkundeari egindako ekarpen bikainagatik. 1953an Eibarren jaioa, Barrenak unibertsitateko irakaskuntzan eta ikerketan lan jarraitua egin zuen.



“Miña Nai” dantza eta musika ikuskizuna Coliseon

S.H. Bihar (zapatua, azaroak 29) *Miña Nai* izenburuko dantza eta musika ikuskizuna taularatuko dute Coliseo antzokian, 20:00etan. Patxi Labordaren ideia originala da lana, eta berak zuzendu du Galizia eta Euskal Herriko musika eta dantzak oinarri dituen ikuskizun hau. Izenburuak “Ama geurea” esan nahi du galizieraz, eta emigrazioa era desberdinean bizi duten hiru amaren istorioa kontatzen da lan honetan, benetako historietan oinarriturik. Barakaldoko Ibarra-kalduko dantzari eta musikariek batera, Barakaldoko Centro Galegoa Doces Lembranzas dantza taldea, Ceo do Sil gaiteiro taldea, Son Mesturado cantareira taldea eta Sestaoko Folketan musika taldea arituko dira eszenatokian. Sarrera doan da.

Illunabarrian tailerretarako izen-ematea zabalik dago

S.H. Sormena lantzeko moduko bi tailer eskainiko ditu ... eta kitto! Euskara Elkartek abenduan, *Illunabarrian* programaren baitan. Abenduaren 9an (martitzena), txapa tailerra egingo da, Arima Cool



Tour-en eskutik. Eta abenduaren 11n (eguna) kandelatailerra emango du Alluitz Naturak. Bi tailerrak 18:30etik 20:00etara izango dira eta parte hartu ahal izateko 8 urtetik gora izan behar da (haurrak heldu batek lagunduta etorri beharko dira). Bi tailerretarako izen-ematea zabalik dago eta www.etakitto.eus webgunearen bidez, telefonoz deituta (943200918) edo bertara joanda (Urkizu, 11 solairuartera) egin daiteke. Prezioa 10 eurokoa da pertsonako (7 euro bazkideentzat).

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6	7		4			3		2
		4	6	8		5		
								7
			9	4			5	3
9	2			7	1			
3								
		7		3	8	6		
4		9			6		3	5

SUDOKUA

4	8	9	7	1	6	2	3	5
1	5	7	2	3	6	8	4	9
3	6	2	2	5	4	1	7	8
8	7	1	4	1	7	8	4	9
9	4	3	3	7	1	8	4	2
7	4	3	8	6	9	5	9	2
3	3	7	2	7	5	3	7	1
8	1	6	4	2	7	6	9	5
5	9	8	1	2	3	4	6	7
2	3	4	8	7	5	1	9	6
6	7	1	4	5	9	3	8	2

5	6	2	7	4	9	6	8	3	1
7	8	6	1	5	3	3	6	4	2
4	3	1	8	6	2	2	9	7	5
2	1	7	3	8	5	8	4	6	9
3	9	5	6	1	4	2	8	7	5
8	4	6	3	4	6	2	7	1	5
1	7	4	2	3	8	5	6	9	7
6	2	8	5	7	9	3	1	4	2
9	2	8	5	7	9	3	1	4	2
6	2	8	5	7	9	3	1	4	2

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			5		6		1	
			2	3			9	
6						7		8
		6						3
		5	6		4	2		
2						4		
4		1						5
	8			5	3			
	6		7		9			

Aurkitu zazpi desberdintasunak



Azaroak 28 / Abenduak 4

BARIXAKUA 28

LIBURU AURKEZPENA

18:00 "La bodega", David Felipe Gomez Triana, Itsasne Allende Sopelana eta Alexander Ugalde Zubirien argitalpena. Portalea.

BERTSO JAIALDIA

20:00 San Andres XXXI. Bertso Jaialdia, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Bertso Paper lehiaketako sariak jaialdia hasi aurretik banatuko dira. Bertsolariak: Alaia Martin, Eneritz Artetxe, Joanes Illarregi, Sustrai Colina eta Unai Iturriaga. Gai-jartzailea: Mikel Arrilaga. 8 euro (leihatilan salgai). Coliseo.



ZAPATUA 29

SANANDRESAK

11:00 Jaixak Herrixak Herrixandako-ren egitaraua-ko montajea, karpan. **12:00** Txupinazoa eta euskal kantu-poteoa, Gure Eskuk antolatuta. Letra-paperak bertan banatuko dira. Kalka taberna. **14:30** Herri-bazkaria. Karpan. **16:30** Bazkalostea. **18:30** Latuna Bando txaranga. **00:00** Kontzertua: Sustrai berriak. Untzaga.

ZAPATUKO IPUINA

12:00 "Ezberdin bezain eder" ipuin-musikatua (3-10 urte), Naita Produzioak-en eskutik. Portalea.

MUSIKA

12:30 Koralito abesbatza-ren kontzertua. Ipuruko Merkatu Plaza.

SANANDRESAK

17:00/19:00 Ustekabe Txaranga, erdiguneko kaleetan. 19.30/22.00 Erromeria, Zutik taldearekin.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

SINADURA-BILKETA

19:00/21:00 Kalean dauden pertsona guztiei harreara egiteko dispositibo bat abian jartzea eskatzeko. Toribio Etxebarria kalea.

ANTZERKIA

20:00 "Miña nai" ikuskizuna. Parte-hartzaileak: Barakaldoko Ibarra-kaldu elkarte, Barakaldoko Centro Gai-legoko "Doces Lembranzas" dantza taldea, "Son Mesturado" pandereteirak eta "Ceo do Sil" eta "Folketan" musika taldeak. Doan. Coliseo.

DOMEKA 30

SAN ANDRES EGUNA

09:30 XLVI. Nekazaritza Azoka. **11:30** Usartza Txistulari Bandaren kalejira. **12:00** XXI. San Andres Aizkolarien Txapelketa: Iker Vicente, Hodei Ezpeleta, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" eta Jose Mari Mujika. Enara (7 urte) eta Aratz (11 urte) haurren erakustaldia. **12:00** Bertsolariak, trikitilariak eta kalejira. **12:30** Plazara Dantzara erromeria, Kezka dantza taldearen eskutik, eta Jainaga eta Narbaiza

trikitilariekin. **13:15** San Andres azoka, pintxo txapelketa eta kartelen sari banaketa. Untzaga, Txaltxa Zelai eta Errebal Plazia.



SINADURA-BILKETA

12:00/14:00 Kalean dauden pertsona guztiei harreara egiteko dispositibo bat abian jartzea eskatzeko. Toribio Etxebarria kalea.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

MUSIKA KLUBA

19:00 Anna Duke-ren kontzertua. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartela-rekin). Coliseo.

ASTELEHENA 1

AUZO-BILERA

18:30 Behealdean bizi direnentzat. Beheko Toki adinekoen zentroa.

EGUAZTENA 3

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikastenen eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

AUZO-BILERA

18:30 Ipuruan bizi direnentzat. Ipuruko jubilatuen etxea.

EUSKARAREN EGUNA

19:00 Euskararen Eguna ospatzeko ekintza, herriko euskalgintza osatzen duten taldeek antolatuta. Untzaga (harmailen aldea).



EGUENA 4

AUZO-BILERA

19:00 Amañan bizi direnentzat. Amañako parrokia.

ERAKUSKETAK

Azaroaren 28tik abenduaren 14ra

"Eibar lehen eta orain", Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa. Topaleku.

Azaroaren 29ra arte

Exfibar 2025. LVI. seilu erausketa. Portalea.

Abenduaren 7ra arte

"Eibarko txirrindularitza". Untzaga gizarte zentroa..

Azaroaren 30era arte

"Indarkeria matxistaren aurkako memoria-lekuak", Mugarik Gabe-ren eskutik. Andretxea.

ZINEA COLISEO



“Singular”
INTRIGA.DRAMA.
2025/Espainia/100’
Zuzendaria: Alberto Gastesi
Aktoreak: Patricia López Arnaiz,
Javier Rey, Miguel Iriarte.
**Drama psikologikoa. Adimen
artifiziala .**

1 ARETOA

- 29an: 22:30
- 30ean: 17:00, 20:00
- 1ean: 19:30



“La larga marcha”
TERROR. THRILLER.
2025/AEB/108’
Zuzendaria: Francis Lawrence
Aktoreak: Cooper Hoffman,
David Jonsson, Judy Greer.
Distopía. Adolescencia.

2 ARETOA

- 29an: 22:30
- 30ean: 20:00

ANTZOKIA

- 1ean: 19:30



“Gaua”
BELDURRA.FANTASIA.
2025/Euskal Herria/93’
Zuzendaria: Paul Urkijo Alijo
Aktoreak: Yune Nogueiras, Ane
Gabarain, Elena Irureta, Iñake
Irastorza
Sorginkeria. MunstroaK.

2 ARETOA

- 1ean: 19:30



“La orgullosa princesa”
ANIMAZIOA.
2024/Txekiar errepublika/84’
Zuzendaria: Radek Beran, David
Lisy.
Aktoreak: Marek Lambora, Anna
Fialová Krasomila.
Umeen zinea.

2 ARETOA

- 30ean: 17:00

Julio Abraham Del Río

2. URTEURRENA
2023/11/29

Nire bihotzean betirako
eramango zaitut.

- GEMA -

HUGO

2025/11/24

Zure bizipoza eta
oroitzapena beti izango
dira gure artean.

–Mandiola Laguntaldeko
kideak eta lagunak–

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **KONTXA!**
Ondo ospatu zure 101. urtebetetzia. Maitasun handiz, Mirta eta Ipuruako kuadrilla.



Zorionak **MAITANE!**
Azaroan 20an, urtetxo bat bete dozu. Segi gure bizitza alaitzen, bihotza. Asko maite zaittugu BITXITA! Aita, ama eta Julen.



Zorionak **NIKO!**
Urtebete egin dau gure txikixak. Musu erraldoia famelixa osuan partez. Asko maite zaittugu, gaiztotxiki!



Zorionak **ARIADNA!**
Bi urte betetzen dittuzu gaur. Neska zoriontsua eta argixa zara. Amama eta amatxon partez, zorionak!



Zorionak **AIERT!**
Gure etxeko txipiroia! Gaur bi urte! Jarraitu egunak alaitasunez betetzen. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak **MARKEL.**
pitxintxo! 28an 4urte egiten ditzue eta! Besarkada haundi bat famelixa guztien partez. Pila bat maite zaittugu!



Zorionak **ANE!**
San Andres egunian 9 urte beteko dozuz eta. Ondo ospatu zure eguna. Musu haundi bat danon partez.



Zorionak **TXOMIN!**
Martitzenian 7 urte beteko dozuz eta. Primeran pasatu famelixarekin! Patxo haundi bat Pello eta Elixen partez.



Zorionak **JON!**
Abenduaren 3an 8 urte beteko dozuz eta. Patxo haundi bat famelixan partez.



Zorionak **MARA ETA NAYRA!**
Barixakuan eta zapatuan 10 urte betetzen dozuez eta. Musu bat famelixa bixen eta, batez be, Aiur, Aday eta Eriaren partez.



Zorionak **MALEN!** Asteartian 8 urte beteko dozuz. Segi hain alaia izaten. Egun oso ona pasau eta musu asko famelixa eta, batez be, June ta Snowy-ren partez.



Nicolas Zurutuza Otxandorena

5. URTEURRENA
2020/11/29

"Gure bihotzean betirako eramango zaittugu"

- ETXEKOAK -





Maria Luisa Iturriagagoitia Milicua

2025/11/23

Bizitzaz maiteminduta. Familiak eta lagunak, zure irribarrea gogoratuko dugu. Eskerrik asko ama.

-ETXEKOAK-



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
Pisua salgai, guztiz hornitua erdigunean. Txaltxa Zelai inguruan. 631579498.


4. LANA
4.1. Lan bila
Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Baita pintura eta gidari-lanak egiteko ere. 641844485. Robinson.
Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko edo partikularrak emateko. Magisteritza ikasketak. 648625209.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalaritzan sukalde laguntzaile bezala. 602051567.
Gizonezkoa eskaintzen da tabernetan lan egiteko, nagusiak zaintzeko edo lorazain moduan aritzeko. 643160133.
Mutila eskaintzen da astebueretan tabernetan lan egiteko. 682213356. Iker.
Garbiketa lana edo nagusien zaintza egiteko prest nago. Arratsaldetan. 620757528. Arrate.
Neska eskaintzen da kamarera edo harreragile moduan lan egiteko. Esperientziarekin. Gabonetako, udako edo Aste Santuko oporretan. 611433467.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako, interna bezala edota ostalaritzan sukalde laguntzaile bezala. 747495356.
Emakume erizaina eskaintzen da zainketa lanak egiteko, orduka edo jardunaldi osoa. 641834341.

- Gizona eskaintzen da pintura, elektrizitate, igeltseritza eta zurgintza lanak egiteko. 641838914.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak eta umeak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. 641781229.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gabaz, 21:00etatik 09:00etara, etxe edota ospitalean. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak, umeak eta txakurrak zaintzeko, zein tabernetan lan egiteko. 632119320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, baita txakur ileapaintzaile bezala ere. 624830282.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, egunez edo gauzez. 643768260

4.2. Langile bila
Interna behar da gurgil-aulkian dagoen adineko bat zaintzeko. 626206564.
Estetizista behar da Eibarko ileapaindegi batean lan egiteko. Lan-giro paregabea. 943208125.
Astelehenetik ostiralera neska gaztea hartuko nuke pasiatzen eta beste zereginetan laguntzeko. 686391904. Gorka.
Sukaldaria behar da Eibarko taberna batean, barran zerbitzatzeko ezagutzarekin. Informazio gehiago Orbela tabernan. 660460295.
Depor tabernan kamareroa/zerbitzaria behar da barixaku-astelehena bitartean lan egiteko. 665726146.

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
Pintura klaseak ume edota helduentzat. Umeak; 4 ertatik aurrera, helduak; edozein adinetakoak. Informazio gehiago www.maitearriaga.com . 668 51 68 93
DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK
6.1. Salgai
Txakurrentzako edo katuentzako transportina salgai. 37 zm. zabalera/45 zm. altuera/61 zm. sakontasuna. Estreinatzeko. 20 euro. 688626914.
Gurpildun aulki elektrikoak salgai. 60 zm. zabalera 90 zm. sakonera. 1.800 €. 688847237 eta 656756470.
Oso gutxi erabilitako sehaska zuri lakatua salgai, koltxoi eta guzti. 679184531.
6.3. Galdu
Txakurra galdu genuen aurreko astelehenean Azkue auzo inguruan. Podenco arrazako emea, marroi argia eta txuria. Ikusiz gero deitu mese-dez. 747424955.



Ideia on batetik



sortuko da zure negozi**o**a.

L**o**kalk txar batekin ordea, akabo.[†]

Errekatxu Berri da zure
negozioaren giltza; zatoz.

Lokalak eta **garajeak** salgai,
estreinatzeko prest.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir



EIBAR

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

10. URTEURRENA

*Eskerrik asko
gure paziente
guztiei*



📍 San Agustín Kalea, 4 behea ezkerre (Eibar) ☎ 943 537 076 · 688 884 808

🌐 www.eibarclinicadental.com

R.P.S. 79/25 Maitane G. Iñiguez - ODONTÓLOGO(A) LICENCIADO(A)